

INFORMAZIO-ORRIA HOJA INFORMATIVA

PAZIENTEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

IDENTIFICACION PACIENTE

GORAKOAK VOMITOS

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **GORAKOAK.**

ZER DIRA?

Zenbait gaixotasunen kasuan, umeek botaka egitea da dena delako gaixotasun hori daukatela adierazteko bidea, batez ere txiki-txikitan.

Beraz, gorakoekin batera agertzen diren sintomei erreparatu behar zaie. Gehienetan, gaixotasun arinak izaten dira eragileak: otitisa, amigdalitisa, gastroenteritisa..., baina batzuetan sintoma honen azpian gaixotasun larriagoren bat egon daiteke.

ZERI JARRI BEHAR ZAIO ARRETA?

Gehienetan, oso zaila izaten da lehenengo orduetan jakitea zein den gorakoen arrazoia, edozein gaixotasunen lehen sintoma izan daitekeelako; normalena arina izatea da edo ordu gutxiren buruan desagertzea, besterik gabe. Hortaz, beti hartu behar dituzu kontuan honako hauek:

- Gorakoak nolakoak diren: behazun-gorakoak garrantzitsuagoak izan daitezke (likido hori-berdexka).
- Hidratazio-egoera: kontuan hartu beti umearen egoera orokorra eta deshidratazio-zeinuak: ezpainak eta ahoa lehor edukitzea, malkorik ez izatea eta erdi lo egotea edo gehiegizko negarra.
- Digestio-sintomak: sabeleko mina, beherako likidoa, odola kakan.

Sintoma hauetakoren bat badauka, edo likidoekiko intolerantzia behin eta berriro, medikuak aztertu beharko du.

NOLA TRATATZEN DIRA?

Hasieran, etxean azukredun likido freskoak ahotik ematen saiatzea da bidea, kantitate txikietan eta sarritan. Ondo toleratzen baditu, dieta bigunarekin jarrai daiteke (digeritzen zailak ez diren elikagaiak), gero eta kantitate handiagoetan, eta umeak goragaleak badauzka, atsedenean egon behar da.

Zuk ez eman farmazietako gorakoen aurkako prestakinik, batez ere lehenengo orduetan, arrazoia oraindik argi ez dagoenean alegia. Medikamentu hauekin gaixotasun larri baten sintomak ezkutatu daitezke, eta batzuetan, medikamentu hauek eragin toxikoak sortzen dizkiete umeei.

Su hijo ha sido diagnosticado de **VOMITOS** por los síntomas que presenta en el momento actual

¿QUÉ SON?

Los vómitos en los niños son una de las formas más frecuentes de presentación de enfermedades muy variadas, sobre todo cuanto más pequeños sean. Usted debe fijarse siempre en los síntomas asociados que presente su hijo. La mayoría de las veces son debidos a enfermedades leves, como otitis, amigdalitis, gastroenteritis... pero en ocasiones la causa de este síntoma, es una enfermedad más importante.

¿QUE VIGILAR?

La mayor parte de las veces es muy difícil conocer la causa de los vómitos en las primeras horas, pudiendo ser el primer síntoma de cualquier enfermedad, en general de carácter leve, o desaparecer en pocas horas sin otros hallazgos. Fíjese siempre en:

- características del vómito: los vómitos biliosos (líquido amarillo - verdoso) pueden ser más importantes.
- estado de hidratación: siempre valore el estado general del niño y los signos de deshidratación como labios y boca secos, ausencia de lágrimas y adormecimiento o llanto excesivo.
- síntomas digestivos: dolor abdominal, diarrea líquida, presencia de sangre en las heces.

Si presenta alguno de estos síntomas o intolerancia repetida a los líquidos debe ser valorado por un médico.

¿COMO SE TRATAN?

Inicialmente se debe intentar en el domicilio la administración oral de líquidos azucarados y frescos, en pequeños volúmenes y tomas frecuentes. Si son bien tolerados se puede continuar con dieta blanda (alimentos no indigestos) con volúmenes progresivamente mayores, descansando si el niño presenta náuseas.

No debe usted administrar preparados que existen en la farmacia para evitar los vómitos, sobre todo en las primeras horas cuando todavía no está clara la causa. Estos medicamentos pueden ocultar síntomas de una enfermedad importante y en ocasiones producen efectos tóxicos en los niños.

Erref./Ref.: PED/HI-38

Orrialdea/Pag.: 1/1